

## Mendizale aparta: Ines Lasa

82 urterekin egin du XIV Ordukoa ▶ 3



# Jon Goikoetxea 'Boli' gazteluarrak Everesteko gailurra igotzea lortu du

«ONDO» ▶ Azkenean oxigenoa erabili zuen; nekatuta dago, baina «ondo», arazo fisikorik gabe ▶ 7



Jon Goikoetxea 'Boli' gazteluarra Ibarran bizi da. Argazkian, Ibarrako plazan. AITOR ELDUAIEN



GARAZI AZKUE

## Lore eta landare azoka izan zen igandean

LARRAUL ▶ Usurbildik ekarritako loreak eta landareak ikus ahal izan ziren goiz osoan zehar; datorren igandean berriro izango da ▶ 6

### BIHAR EZ DA HITZA IZANGO

Lehenko igandean aurre-ratu bezala, bihar ez da TOLOSALDEKO HITZA kalean izango. Atzo, astelehena izan arren, XIV Orduko Ibi-laldiari buruzko informazio zabala jasotzen zuen zenbakia kaleratu zuen Hrtzak eta bihar, asteazkena, ez da kalean izango.

### ANOETA ▶

## Kontzertuak eta jaiak, Gaztetxeak bost urte bete dituela-eta

Gaur ipuin kontalaria izango da eta ekitaldi nagusiak, asteburuan ▶ 5

**DENDA HAUEN Tolosaldeko HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA**  
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre Ileapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri Berezikiak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amajia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogaz
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa denda

**HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELARAKIN %5\*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.**  
(Martxotik ebalera)

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!**

\*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

XIV ORDUKO IBILALDIA ▶



# 2.718 lagunek burutu dute 2004ko XIV Orduko Ibilaldia

Irtendakoen %91,2 dira: 2.306 gizona zkok osatu zuten ibilbidea (%92), eta 412 emakumezkoak (%8); 261 lagun erretiratu ziren, irtendakoen %8,8

## LEIRE MONTES

«Gustura» dira antolatzaileak ibilaldiaren biharamunean. Dena «ondo» joan zela diote: giro aparta, eguraldi bikaina, antolaketa txukuna eta parte-hartze ona izan ziren nagusi.

## PARTAIDETZA

**Irtendakoak.** 2.979 lagunek ekin zitoten martzari, horietatik 2.507 gizona zkok (%84,2) eta 472 emakumezkoak (%15,8).  
**Iritsitakoak.** 2.718 lagunek osatu zuten ibilbidea, irtendakoen %91,2, hain zuzen ere. Horietatik 2.306 ziren gizona zkok (%92), eta 412 emakumezkoak (%8).  
**Erretiratatuak.** 261 lagunek utzi zuten ibilaldia, irtendakoen %8,8: 201 gizona zkok —irtendako gizona zkokoen %8—, eta 60 emakumezko —irtendako emakumezkoen %12—.

## DENBORA

«14 ordu?». Antolatzaileen arabera, aurtengo ibilaldia oso azkarra izan da: «Dauzkagun baliabideekin ezin dugu zehaztu parte-hartzaile bakoitzak zenbat denbora erabili zuen ibilaldia osatzeko, baina kontsulta asko eginda ateratako lehen ondorioa hauxe da: ibilaldia oso azkar egin zuten gehienek;

proposatutako denbora azkarrenetik (13 ordu eta erdi) behera ibili ziren asko eta asko».

## KONTSUMOAK

Anoa guneetan ez zen elikagaiarik erabat agortu. Kopuruak:  
**Ura.** 2.800 botila.  
**Jogurtak.** 30.000.  
**Laranjak.** 1.500 kilogramo.  
**Ogia.** 1.400 barra.  
**Tomateak.** 300 kilogramo.  
**Salda.** 600 litro.  
**Txokolatea.** 1.300 tableta.

## OSASUN ZERBITZUAK

«Zorionez ez zen ezer azpimarratzekorik gertatu», diote antolatzaileek. Gurutze Gorriko kideek 800 bat aktuzio egin zituzten, ia guztiak babak, arrastak, giharretako gainkargak eta antzerakoak. «Tentsio eta azukre maila jaisteak eraginda suspertu behar izan zituztenak bakan batzuk besterik ez ziren izan».

## LANEAN

Antolakuntzaren izenean, batik bat anoa guneetan eta kontroletan, 250 bat boluntario aritu dira lanean. Gurutze Gorriko, Euskal Mendi Federazioko eta Nafarroako Polizia Foraleko kideak kontuan hartuta, 400 lagunek egin dute lan.



biltariak, igandean, Uli inguruan. JOXEMI SAIZAR



Jendetza San Migelen; Gurutze Gorrikoak, lanean. L.MONTES/O.ESKITXABEL



## ESKERTZAK

Antolatzaileek hainbat lagun, elkarte, enpresa eta bestelako en laguntza «eskertu» dute.  
**Laguntzaileak.** Tolosako Udala, Tolosa CF Zelai horniketarak, Aralar Kirolak, Insaluz urak, Carnicas Irura, Frutas Bermu-

dez, Quodsail diseinugintza taldea, Cartonajes Limousin, Dionisio Ormazabal S.A. horniketarak, Eroski.  
**Babesleak.** Tolosako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza, Euskal Mendizale Federazioa, Kutxa, Euskadiko Kutxa.

## HERRIZ HERRI ▶

Tolosaldeko ia herri guztiek, 27 hain zuzen ere —Larrauz izan ezik, guztiak ziren present—, izan dute ordezkariak XIV. Orduko Ibilaldian.

- Abaltzisketa.** 6.
- Aduna.** 6.
- Albiztur.** 11.
- Alegia.** 34.
- Alto.** 4.
- Alkiza.** 2.
- Amezketak.** 42.
- Anoeta.** 46.
- Asteasu.** 26.
- Baliarrain.** 3.
- Belauntza.** 14.
- Berastegi.** 23.
- Berrobi.** 8.
- Bidegoian.** 5.
- Elduain.** 1.
- Gaztelu.** 11.
- Hernalde.** 12.
- Ibarra.** 89.
- Ikaztegieta.** 10.
- Irura.** 29.
- Leaburu.** 7.
- Lizartza.** 24.
- Orendain.** 3.
- Orexa.** 2.
- Tolosa.** 479.
- Villabona.** 55.
- Zizurkil.** 33.
- Areso.** 1.
- Leitza.** 11.
- Beste hainbat.** Donostia, 350; Bilbo, 51; Bartzelona, 1; Madril, 1; Tarragona, 3; Reus, 1; Benasque, 2; Malaga, 2; Lugo, 1; Valentzia, 1; Ciudad Real, 1; Cuba, 1; Ingalaterra, 1; Caceres, 1; Pau, 2; Larresoro, 3.

**Osasun zerbitzuak.** Gurutze Gorria, Euskal Mendizale Federazioa, Tolosako Podologia zentruak.

## IRITZIA ▶ RAMON OLASAGASTI ('BERRIA' ETA EUSKADI IRRATIKO MENDI KAZETARIA)



# Mendi maratoinen sukarrak jota

Igandeko ibilaldiaren ondoren motelduta ditut baita neuronak ere. Tajuzko ez ez dazteko gai ez direla, eta ez esatekoren bat esateko arriskuan. Eskerrak batzuk bizkorrago dabiltzala: bete-betokoa iruditu zitzaidan atzoko HITZAREN azaleko titularra. Mendi festa bikaina. Azken urteotan festa bihurtu dela iruditzen baitzait XIV Orduko Ibilaldia. Hilabete batzuk lehenago hasten da prestakuntza, solasaldietan ez dago beste konturik, eta egunean bertan ibiltariak, familiakoak, lagunek eta antolatzaileek giro paregabea sortzen dute. Eta igandean bezala eguraldia lagun bada, bete-betokoa suertatzen da festa.

Betidanik izan gara euskaldunak festazaleak. Eta erronkazaleak. XIV Orduko Ibilaldia bukatzea erronka baita askorentzat, erronka zaila. Beste batzuentzat, ordea, ibilaldia bukatzea husteria izango da, eta denbora ahalik eta gutxienean egitea izango da erronka, sasoi erakustaldia egitea. Izugarri prestatzen baita egun jendea. Aizkorriko maratoinen sukarrak jota bezala. Atze-atzean ibili ginen gu, eta kontroletara iristen ginen aldiro ez zegoen beste konturik: 8:40etarako Lekunberrin omen zeuden aurrenekoak, eta gu Ulitik irten berriak; 10:45etarako San Migelera iritsi zirela

lehenbizikoak; 15:30tan Tolosan zeudela jada aurreneko lasterkariak... Eguerdia erekin batera aurrenekoen denbora zen jendearen komentario nagusia. Kritika, harridura eta, implizitoki, gorripamena nahasten ziren aipamen horietan. *Diario Vasco* egunkariako azken orriak ere horixe bera hauspotzen zuten titularrean: Hamalau ordu, hamarretan, besteen ahaletinak deus balio ez balu bezala. Berriz ere harrotuko dira korrikalariak. Zainetaraino sartzen ari zaigu lehia eta kirol ikuspegia, baita mendian ere, eta, noski, XIV Orduko Ibilaldia ez dago libre. Hari 10 minutu lehenago seilatu

diote, besteak ordualduren galdu du Mahalako inbutuan, hark ordu eta erdian egin du Atako igoera...  
TOLOSALDEKO HITZAKO azkeneko orrialdean Joxe Albero ikusteak poztu ninduen izugarri. «Gure garaiko ibilaldiak oso bestelakoak ziren», zioen Alberok. Bakoitzak uler dezala nahi duen moduan. Garaiak aldatzen doaz eta ezin jakin noraino eramango gaituen sukar honek.  
Lau urte barru, bateren bat agian bazkal ordurako iritsiko da Berazubira. Besteok festaz gozatzen jarraituko dugu, XIV Orduko Ibilaldiak hamalau ordukoa izaten jarraitzen duen bitartean. Eta, ahal dela, mendiaz gozatzen daztozen lau urteetan.

INES LASA ▶ MENDIZALEA

## «Goizez gustatzen zait mendia, gorputza hobeto egoten delako»



IRATXE ETXEBESTE

**IRATXE ETXEBESTE**

Aurreko edizioan egin zuen lehenengoz XIV Orduko Ibilaldia, 78 urte zituela. Lau gehiago ditu orain, eta egin behar zuela «buruan sartu» zitziolako, amaitu egin zuen igandekoa. Ongietorri berezia egin zioten, gainera, Berazubira heldu zenean. «Lagunek eta ezagutzen ez nituenek». Mendian bezala, doan leku guztietan «oso jende ona» bilatzen baitu beti. Batean eta bestean egindako lagunek ematen diote, hain zuzen ere, bizi-pozaz kazetarien galderak entzun orduko hamaika erantzun ematen dituen mendizaleari. Aralarko Adiskideak elkartearen egoitzan geratu, eta kazetari batek kiroldegira autoz joango al ginen galdetu zionean («zoraturata al zaudete?», erantzun zuen atzo. Mendi gainetan adina abilezia du paseorako. Baita takoidun zapatekin ere. Ines Lasa alegiarra izan da aurtien XIV Orduko Ibilaldian parte hartu, eta bukatzea lortu duen pertsona hel-duena.

**Hasi eta bukatu. Ez zenuen berehalakoan etsitzeko asmorik.**

Ez, ez. Burugogorra naizela esaten didate denek, eta hala izango da. Ibilaldia egingo nuela esan nuen, eta bukatu gabe ez nuen geratu nahi.

**Gogorra izan zen eguna?**

Bero handia egiten zuen, eta hobeia izango litzateke itzala balego. Iribasetik San Miguelearako bidean, Ataigoeran zaintzarua eman zidan, eta geroago

**ZAINTZA**

**«Hankak zaindu egin behar dira aurpegia bezainbeste; zutik egon behar dudanean ere ibili egiten naiz»**

beste bat ere bai. Igurtzi batzuk eman nizkion izterriari, eta ondoren ez nuen berriro sentitu. Maribi Tatiegik, nire lagun minak, esaten zidan erretiratzeko, eta 'ezta pentsatu ere!' erantzun nion. Asko lagundu zidan lagunak.

**Duzun amuletoak ere bai?**

Beti eramaten dut soinean errosario txiki bat. Semeak Zaragozan ikasi zuen, eta joatean eman egin nion. Handik galdut gabe ekarri zidan, fin-fin. Harrezkero leku guztietara eramaten dut nirekin.

**Amaieran ongietorri berezia egin zizuten.**

Ezagunak eta ezagutzen ez nituenak ere bazeuden. Afaltze gongbidatu ninduten, baina ez ginen geratu. Etxera joateko gogoa izaten da halakoetan.

**Nola prestatu zenuen marrotxa?**

Bi aldiz egin dut ibilaldia bera hamabost egunetan. Lehengo igandean Igaratzen egon nintzen, eta mediku frogak egin nituen. Oso ondo nengoela esan zidan, eta halaxe erabaki nuen parte hartzea.

**Mendira eruz joaten al zara?**

Bai, bai, Uzturrera noiznahi joaten naiz, eta handik Belabietarako bidea hartzen dut sarri-

tan. Jaizkibelera, Erniora... oso gustuko dut.

**Lagunekin beti?**

Uzturrera-eta bakarrik joaten naiz; ez dauka ezer bakarrik joan ahal izateko. Hori bai: goizez gustatzen zait mendia, gorputza hobeto egoten delako.

**82 urterekin mendian hara eta hona ibili ahal izateko asko zaintzen al zara?**

Denetik jaten dut, eta kirola egiten dut maiztasunez. Yoga-ko eskoletara joaten naiz astean bitan, eta ondo sentitzen naiz. Igerian ere ikasi nuen...

**Sekreturik ez duzu, beraz?**

Bizitzeko poza behar da, besterik ez: atera, lagunak egin... Hori eginez gero gaztetuta joaten zara etxera. Gure adineko gazte artean ibili behar dute gazte mantentzeko.

**Hanketako arazorik ez duzu izan ibilaldiaren ostean?**

Batere ez. Oso gogorrak ditut hankak. Oinetako eta galtzerdi onak erabiltzea garrantzitsua da, baina baita hankak zaintzea ere. Hankak zaindu egin behar dira aurpegia bezainbeste. Sendagile batek esan zidan behin geldirik ez egoteko zutik egon behar izatekotan, hankak orduan kargatzen direlako. Geltokian ez naiz geratzen: ibili eta ibili aritzen naiz trenaren zain nagoenean.

**Eta... lau urte barru zer?**

Hemendik lau urtera arte badakizu zenbat euri egin behar duen? Nola esango dut bada zer egingo dudau lau urte barru! Oraingoz, egunez eguneko: igandean mendira joango naizela esango dut. ◀

**GUTUN@K** ▶



### Zer gertatzen da Zerkausiarekin?

Hauxe da azkenaldian tolosar askok, tartean Tolosa Bizirik ekimeneko hautetsiok, gure buruari egiten diogun galdera. Zerkausiarren etorkizunari buruzko hausnarketa eta eztabaida prozesua ez da berria. Aurreko legegintzaldian jarri zen abian eta hainbat ekarpen eta proposamen tekniko hainbat hartuz eztabaidaren oinarriak ezarri ziren. Egindako lana herriari ezagutzera eman eta herritar eta eragile ezberdinen parte-hartzerako guneak zabaltea behar zuten, gure ustez, prozesuaren hurrengo pausoak. Beti bultzatu izan dugu udal erabakietan herritarren parte-hartze efektiboa.

Horregatik, kezka handiz hartu dugu egungo udal gobernuak gaiari ekiteko aukeratu duen bidea. Gure ustez etxer banatu berri den inkesta ez da, inolaz ere, herritarren parte-hartzea ziurtatzeko biderik egokiena, ez eta Zerkausiarrentzat irtenbiderik egokiena aurkitzeko ere.

Alde batetik, prozesuaren hasieran egongo bagina bezala, herritari aurrez egindako lana ezkutatzen zaio. Parte-hartzea, kuantitatiboaz gain, kualitatiboaz izan dadin ezinbestekoa da aurrez bildu den informazioa herritarren esku jartzeko. Ez da egia Zerkausiar edozer egin daitekeenik, eta inkestak hori ematen du aditzera. Bestetik, banatu den inkestak aurrez harturiko erabakiak justifikatzera zuzendua dirudi, eta, edozein kasutan, bertatik aterako diren ondorioek ez dute horrelako prozesu batek ezinbestekoa duen garrantasunik izango.

Beraz, inkesta hau, gure ustez, propaganda hutsa dela salatu nahi dugu, lanen atzerapena besterik eragingo ez duena. Eta gure kezka adierazi nahi dugu, baita ere, herritarren parte-hartzea gaitzitu beharreko *expediente*tzat duten gobernu jardueren aurrean. Izan ere, EAJ-PNV alderdiak demokrazia parte-hartzaileari buruz duen iritzia eta praktika aski ezagunak baitira. Horra hor, Abiadura Handiko Trena, Borroako zentral termikoa, errauskailuen auzia, edota, gertuago, Tolosa kirol instalakuntzen auzian izandako jarrera.

Tolosa Bizirik herri ekimeneko kideok herritarren parte-hartzea beste modu batera ulertzen dugu. Aurreko legegintzaldian, berretako demokrazia parte-hartzailearen lehen harriak jarri genituen, eta bide horri eusteko asmoa adierazi nahi dugu. Horregatik, dei berezia luzatu nahi diogu egungo udal gobernuari, itxurakeriak alde batera utzi eta herritarren parte-hartze efektiborako guneak zabal ditzan. Tolosak, Zerkausiaz gain mahai gainean

ditu etorkizun hurbila eta urruna baldintzatuko duten eztabaida garrantzitsuak, hala nola, Udal Plangintza Arau Ordezkatzaileen berritzea zein AHT-k gure herrian izango duen eragina... Etorkizuna guztion artean eraiki behar dugu.

HEKTOR ESPIN ETA AITOR IZTUETA ▶ TOLOSA  
BIZIRIK PLATAFORMAKO ZINEGOTZIAK

### Euskal Herria aitortu: amnistia

Euskal Herriaren izaera eta euskaldunon erabakiak ukatuak dira aspalditik, eta gaur egun ere estatuek mendean hartu nahi gaituzte, euskal izaera eta gure borondatea errespetatu gabe. Errepresioa eta ukazioa amaigabeak dira, batez ere errepresaliatuekiko. Euren izaera politikoa ukatua den neurrian, gatazkaren izaera ere desitxuratu nahi dute. Politikoki ezereztu eta fisikoki suntsitu nahi dituzte herri honetako borroka erreferentzia ezin argiagorak direnak, errepresaliatuak, alegia. Horregatik, denon erronka da euskal errepresaliatuen izaera eta eskubide politikoak aldarrikatzea.

Euskal Herrian nahi ditugu. Orainxe. Etxean eta bizirik, marthan dagoen prozesu politikoen inguruan beren iritzia eta parte-hartzea bermatzeko. Euskaldunon borondatea errespetatu izateko, herritar guztion ekarpenik gabe ez baita izango Euskal Herriak. Gatazkaren oinarrian daude arazo politikoak konpondu gabe, bakea gero eta urrunago egongo da. Modu berean, errepresaliatuen izaera politikoa onartu eta borrokarako arazoetan sakontzen ez den artean, preso iheslariek borrokan jarraituko dute. Ildo horretan, datorren astelehenera aurrera eta aste osoan zehar Amnistiarren Aldeko Mugimenduak antolatutako Amnistiarren Aldeko Astearen parte hartzea animatzen zaituztegu. Aste honen barruan antolatutako diren ekitaldiak hauek dira:

Asteazkena, 19, eskualde mailako auto-karabana Eroskiko aparkalekutik aterata. Ostegunetik igandera, 20tik 23ra, Donostiako Miramar Jauregian Nazioarteko Elkartasunezko Konferentzia izango da, preso politikoen izaera eta espeteetako egoerari buruzko zenbait bideo emanaldi, mintegi eta batzar izango direlarik. Ostirala 21, eskualdeko manifestazioa, 19:30etan, Triangulotik. Igandea, 23, 13:00etan, eta Konferentziako Batzar Orokorriari amaiera emanez, manifestazio nazionala Donostiako Bulebarretik.

Euskal Herriaren alde eraginez, eta amnistia eta askatasuna helburu, euskal presoak Euskal Herri!

TOLOSALDEKO AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA ▶ TOLOSALDEA

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Ohorezko maila.

El Palmar-Hegoalde 2-7

Sailkapena ▶

1. Femesala Elche 67 puntu
2. UCAM Murcia 53 puntu
3. Futsi Navalcarnero 46 puntu
6. Hegoalde Tolosa 37 puntu
7. Kettal Fuenlabrada 36 puntu
8. Teldeportivo 31 puntu
14. El Palmar 16 puntu

Autonomikoa.

Alcampo-Usabal sag. -/-  
(Usabal ez zen partidara azaldu)

1. maila.

Trans.Lacunza-Zaldibi 3-4  
Lakorain A.-Ext. La Bellota 2-1

2. A maila.

Euromar K.-Alegia Calcinor 4-2  
Eskolapiok-Lanbroa 4-1

FUTBOLA

Goren maila.

Tolosa-Amaikak bat 1-2  
Sailkapena ▶

1. Elgoibar 66 puntu
2. Berio 63 puntu
3. Zarautz 60 puntu
6. Tolosa 53 puntu
7. Trintxerpe 52 puntu
8. Aloña Mendi 51 puntu

20. Amaikak bat 25 puntu

Lurraldekako 1.maila.

Segura-Intxurre 8-4  
Orioko-Tolosaldea 2-1

Sailkapena ▶

1. Mutriku 67 puntu
2. Orioko 64 puntu
3. Ilixtxa 59 puntu
6. Tolosaldea 50 puntu
15. Intxurre 19 puntu
16. Gazteak 12 puntu

Gazteen 1.maila.

Intxurre-Beasain 3-4  
Antoniano-Billabona 3-2

Nesken kopa.

Tolosa-Amaikak bat 3-0

Gazteen 2.kopa.

Amara Berri-Tolosa 2-5

PILOTA

HITZA txapelketa.

Etorbizunekoak

Elurbe-Baez II. 17; I.Aranzabe-  
E.Galarraga 22  
Onsalo-Elizalde 22; Etxaniz-Viñaras 18

Infantilak

Iraola-Iraola 18; Esnaola-Esnaola 2  
Barandiaran-Oliveira 4; Lujambio-  
Eizagirre 18

Gaztañaga-Aizpurua 18; Elola-  
Dorronsoro 14  
Aldalur-Otamendi 18; Urteaga-Oregi 7

Benjaminak

Ander-Altuna 16; Antoñanzas-Azkarate 5  
Urdangarin-Urdangarin 8; Irazusta-  
Benadre 16  
Erdozia-Pagola 14; Aizpuru- Eizmendi 16  
Artola-Otamendi 10; Eskudero-Jauregi 16

Alebinak

Urretabizkaia-Kasatorre 16;  
Semperena- Goitia 12  
Azketa-Muñoz 16; Irazustabarrena-  
Zabala 6  
Galarraga-Egiguren 16; Eizagirre-  
Manterola 6

TOLOSA ▶ FUTBOLA

# Gol ugari eta jokaldi bikainak eskaini zituzten tolosarrek

«Jokaldi azkarrak eginaz», erraz irabazi zuten Hegoaldeko jokalariek El Palmar taldearen aurkako partida

EL PALMAR ▶ 2

HEGOALDE ▶ 7

**El Palmar.** Madrid; Bernal; Martinez; Alonso; Silvia Aguilari; Bibian Sanchez; Garcia; Patricia; Noelia Moreno; Barbara Almagro eta Eugenia Palmares.

**Hegoalde.** Nerea Arana; Aldezabal; Salazar; Miriam Arana; Zuriarrain; Barrio; Martinez; Blanco; Laguardia; Prados eta Zelaia.

**Golak.** 0-1: Barrio (1m.); 1-1: Bibian (15m.). 2-1: Aguilari (19m.); 2-2: Aldezabal (20m.); 2-3: Barrio (23m.); 2-4: Blanco (25m.); 2-5: Aldezabal (31m.); 2-6: Arana (35m.); 2-7: Idoia (39m.)

OLAIA ESKITXABEL

Hil ala biziko partida izan zen pasa den asteburuko El Palmar taldearentzat; ohorezko mailan beste urte batez mantentzeko behar beharrezkoak zituzten hiru puntuak. Puntuak lortzeko, ezinbestekoa zuten Hegoalderen aurka asteburuan zuten partida irabaztea. Baina ez zen horrela izan. Hegoalde 2-7 irabazi zion El Palmar taldeari.

Zaleak bero-bero animatzen zieten etxeko jokalariei; hala ere, tolosarrak ez ziren kokildu eta indartsu hasi zuten partida.

Gol aukera ugari izan zituzten lehenengo bost minutuetan; eta «partida erraz irabazteko aukera ikusita asko moteldu zuten joko tolosarrak».



Hegoaldeko neskek. HITZA

Horren Ondorioz, bi gol sartu zituzten andaluziarrek. 2-3 galzten amaitu zuten lehenengo zatia tolosarrek.

«Bigarren zatian joko hobea egiteko gai zirela erakusteko gogoz irten ziren jokalariek», diote ordezkariek. Defentsa argi eta eraginkor batekin, aurkaria blokeatzea lortu zuten; hortik aurrera, jokalarri bakoi-tzida bere postuan kokatu eta partidaz gozaten hasi ziren.

Baloia alde batetik bestera eramanez, eraso azkarrak egin zituzten Hegoaldeko neskek; emaitzak berehala ikusi ziren, golak bata bestearen atzetik sartu zituzten. Andaluziarrek gol bakar bat ere ez zuten sartu bigarren zatian; Hegoaldekoek, berriz, lau.

BIDEGOIAN ▶ KULTURA

## Atzo hasi ziren XXII. Emakume Jardunaldiak

Beste hitzaldi bat eta antzerki emanaldia izango dira ostiralera bitarte

O.ESKITXABEL

Urtero bezala, maiatzaren iritsierarekin, Emakume Jardunaldiak antolatuta dituzte Bidegoian. XXII.ak izango dira aurtengoak.

Atzo hasi eta ostirala bitarte ekitaldi desberdinak antolatuta dituzte. Atzo, komunikazioa eta adiskidetasuna izan zituzten hizpide eskola zaharreen. Besteak beste, bizimodu osasuntsurako giltzarrien inguruko gomendioak luzatu ziren bertan.

Biharko, maiatzaren 19an, beste hitzaldi bat antolatuta dute; autoestimaren garran-

tziaz mintzatuko dira bertan. Ekitaldia eskola zaharreen izango da 15:00etan.

Antzerki saioa, amaitzeko

Amaitzeko, antzerki emanaldia antolatu dute ostiralera, maiatzaren 21erako. *Ugartzun baten nahiak* antzezlanarekin, Teresa Lopez de Munain aktoreak. Emanaldia eskola zaharreen izango da 15:00etan.

Ekintzetan parte hartzen dutenek ostiraletan Kontzeju jauletan egin asmo den afaria joateko aukera izango dutela zehaztu du Udalak.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

## Sakramentinoetan ikasi zutenen arteko afaria

Maiatzaren 29an egingo dute bazkaria Sakramentinoetan lehenengo aldiz

O.ESKITXABEL

Sakramentinoetan ikasitako arteko afaria antolatu dute maiatzaren 29rako. Dagoeneko eman dute hainbatek izena, baina antolatzailerak guztiakin kontaktuan jartzeko zailtasunak dituztela eta, telefono zenbaki bat utzi dute bazkaria joan nahi dutenek bertara

deitu eta izena eman dezaten: 943-65 36 98 (Tomas Plazola). Izena emateko azken eguna maiatzaren 27a izango da.

Maiatzaren 29an, 11:00etan jarri dute biltzeko hitzordua Sakramentinoetan bertan. Ondoren, 11:30ak aldera, meza entzungo dute gerturaz direnek. Eta, bazkaria, 14:00ak aldera izango da.

**INMACULADA IKASTETXEA  
TOLOSA**

**“ATEAK ZABALIK JARDUNALDIA”**  
maiatzaren 20an  
goizeko 8:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era.

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Erizaintzaren Laguntza
- Farmazia

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK**

- Diagnosi Irudiaz
- Osasun Dokumentazioa
- Gizarte Integrazioa

**AURREMATRIKULA: MAIATZA Tfno: 943 67 36 29**

ANOETA ▶ GIZARTEA

# Kontzertuak eta jaiak Gaztetxearen V. urtemuga ospatzeko

4 itzal, Sufin Kaos, Nekin eta Txirrikas taldeek joko dute; eta tortila, mus eta pilota txapelketak izango dira asteen



Gaztetxeko afarietan jende ugari bildu ohi da. HITZA

## BIANDITZ IRAOLA

Anoetako Gaztetxeak bosgarren urtemuga duela-eta, hainbat ekitaldi antolatu ditu aste honetarako. Ekitaldiak atzo bertan hasi ziren, herriko mendizaleen diapositiba emanaldi batekin.

Gaur arratsalderako, berriz, ipuin kontalari bat izango da. 19:00etatik aurrera Joxe Mari Karrera arituko da ipuinak kontatzen, *Emakumeei buruzko ipuinak* emanaldia izango da gozagai. Etzirako ez dute ezer prestatu, baina ostegunean beste hitzaldi bat izango da, Mikel Errazkin herriko semearen eskutik. Errazkinen hitzaldia herriaren inguruan izango da.

Ekitaldi nagusiak astebukararako utzi dituzte, eta ostira-lean izango da txupinazo ofiziala. 17:00etan izango da hori, eta horren ondoren mural pintaketari ekingo zaio, txalapartarien, dultzainarien eta ataba-

larien musikarekin batera. Trikitilariak ere izango dute euren protagonismoa, 19:00etatik aurrera poteoari hasiera emango baitzaio euren doinuekin alaituta.

Poteatzera animatzen direnek sagardo dastatzeko aukera paregabea izango dute, 20:00etatik aurrera izango da hori.

Gauak diraueno izango da festarik, 23:00etarako kontzertua antolatu baitute. 4 itzal eta Sufin Kaos taldeen eskutik izango da kontzertu hori.

Bezperako egitarauak noiz arte iraungo duten kontutan hartuta, goiz hasiko dute eguna larunbatean. 12:00ak jotzearekin bat tortila lehiaketari hasiera emango zaio, eta hau bukatzearekin makarroi jatea izango da.

Arratsaldean lau t'erdiko pilota txapelketaren finala izango da. 17:00etan emango zaio hasiera, eta berau bukatu ondoren poteoari ekingo zaio berriz ere. Irabaziz gero ospatu beharra dago, eta galduz gero penak busti behar.

Gauetz antzerkia izango da, 22:30ean hain zuzen, eta ondoren beste kontzertu bat. Gau honetarako Nekin eta Txirrikas taldeak izango dira Anoetako Gaztetxean.

Igandean emango zaie Gaztetxearen bosgarren urteurreneko ospakizunei amaiera. 16:00etatik aurrera mus txapelketa izango da, eta horrekin batera festak arterako pakeak eginda geratuko dira.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** 943 65 32 12  
**Anoetaldeak:** 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldeak.** 67 24 11  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77

### Tolosa.

▶ Anbulatorioa: 46 11 11  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Amaroako dispensarioa: 67 26 37  
▶ Ansunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25  
▶ DYA: 943 67 25 36  
▶ Gurutze gorria: 943 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 943 53 88 20  
**Villabona-Aiztondo.** 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo: 69 39 30

### GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

### EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
▶ Arramale-AEK (Tolosa): 67 12 14

### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Bronte C., Korreo kalea 20, Tolosa. 943 67 60 13.  
**Bihar.** Santa Maria, Nafarroa etorbidea 2, Tolosa. 65 46 10.

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22.  
villabona\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaldeak.** 687 41 01 18.  
anoetaldeak@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldeak.** 687 41 00 32.  
ibarraldeak@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

TOLOSA ▶ EUSKARA

## Kontseiluak 'Hizkuntz Eskubideak! Denon Konpromisoa' dinamika abiarazi berri du

Normalizazioa moteltzen ari delako, eta pairatzen duen jazarpenagatik egin dute plana

### B. IRAOLA

Euskararen normalizazioa moteltzen ari dela-eta, eta euskararen gizarte erakundeek jazarpen larria jasaten dutela-eta; *Hizkuntz Eskubideak! Denon Konpromisoa* dinamika abiarazi du Kontseiluak.

Eskubide horiek defendatzea gizarte osoari dagokiola uste du Kontseiluak, beraz hiru esparrutan lan egingo dute.

Lehenik eta behin alderdi politikoeekin eta sindikatuarekin Akordio Soziopolitikoak lantzen ari da, normalizazioa bizkortzeko neurriak hartze aldera.

Bigarrenik Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzea da. Ziur-

tagiri hau emango zaie normalizazioaren aldeko neurriak hartzen dituzten enpresa, saltoki eta entitateei.

Hirugarren neurriak konpromisoa eskatzen du. Herritarrei ere hizkuntz eskubideekiko konpromisoa eskatuko die Kontseiluak herriz herri. Konpromisoak publikoak izango dira, eta gero jarripena egingo zaie, konpromiso horiek betetzeko garaian izaniko zailtasunak aztertu eta gainditze bidean jartzeko. Printzipioz, zerbait masiboa egin ordez, pertsona erreferentzialen konpromisoak lortu nahi dituztela azaldu zuten prentsaurrean bildu ziren Kontseiluko kideek.



Bai Euskarari taldeko kideak, prentsaurrean. JOXEMI SAIZAR

## IRAGARKI LABURRAK ▶

### ALOKAIRUAK

**Etxea.** Ingeles familia batek etxe bat behar du alokairuan abuztuan, Tolosan edo Ibarren. 943 67 00 52 / 943 67 12 75.



Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA  
Mug.: 670 41 79 22  
Tel./Faxa: 943 65 03 13

ZIZURKIL ▶ KIROLA

# Eskuz binakako pilota txapelketa antolatu du Ziotza elkarteak

Zimiteyuan jokatu dira partidak; izena emateko epea hilaren 30arte izango da eta finala festetan jokatu da

GARAIZ AZKUE

Ziotza kirol elkarteak, Jaietako Batzordearen laguntzarekin, Zizurkilgo II. Bikotekako Esku Pilota Txapelketa herrikoia antolatu du. Partidak Zizurkilgoiko Zimiteyuan izango dira.

Parte hartu nahi duen orok badu oraindik aukera, maiatzaren 30 arte egongo baita irekita. Baldintzel dagokienez, edonork eman dezake izena, neskek zein mutilek, eta bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

Partida hauen finala, abuztuaren izango da, Zizurkilgoiko festetan.

Sarien inguruan, 120 euro eta bi afari jasoko ditu bikote irabazleak. Bigarren postuan gelditzen den bikoteak, 80 euro eta bi afari exerteratuko ditu. Hirugarren eta laugarren lekuan gelditzen direnek bina afari lortuko dituzte. Eta azkenik, herriko lehen bikoteak 60 euro eta bi afari eskuratuko ditu.

Izena emateko Iriarte tabernara jo beharko da, edo besteala, 649 31 70 61 edo 943 69 20



Zimiteyuan izango dira partidak. G. AZKUE

51 telefonotara deitu dezakete interesa dutenek.

Pilota txapelketa antolatzen den bigarren urtea da aurtengoa, antolatzaileren esanetan, «oso ongi joan zen iaz txapelketa».

Aurtengo berrikuntza nabarmena, parte-hartzaileena izango da, izan ere, iaz, bailarako pilotarietara mugatu zen norgehiagoka; aurtengoa, edozeinek eman dezake izena mota horretako mugarik gabe.



## Lore azoka igandean

**LARRAUL** ▶ Lore azoka antolatu zuten igandean Larraulgo plazan. Usurbildik ekarritako loreak ikusi eta erosteko aukera izan zuten larrauldarrek, eguzki ederraren azpian, eguraldi aparta egin baitzuen. Goizean jarri zuten postua eta eguerdira arte mantendu zuten bertan. Igandean joaterik izan ez zuenak, datorren igandean izango du berriz ere aukera, orduan ere ekarriko dituzte askotariko lore eta landareak plazara. G. AZKUE



## Kirolarien mahai-ingurua

**ZIZURKIL** ▶ Kirolaren inguruan mintzatu ziren ostiralean antolatutako mahai-inguruan. Ziotza kirol elkartearen lehen urtemuga zela eta antolatu zuten solasaldia. Bertan izan ziren Mikel Uzkudun ESAITeko kidea, Iñaki Azurmendi aizkolaria, Josu Bereziartua mendizalea eta Jose Luis Erkizia, *Baserr*i arraunlaria. Solasaldiarekin hasi aurretik Euskal jolas eta jokoen inguruko bideo proiektzioa ikusteko aukera izan zuten guztiek. G. AZKUE

ZIZURKIL ▶

### Teodoro Hernandorena ipuin bilduma

Teodoro Hernandorena II. Ipuin Lehiaketako lan sari-tuekin liburuxka kaleratuko du Zizurkilgo Udalak. Gaur arratsaldean izango da liburua aurkezpen ekitaldia Atxulondo kultur etxean. Horretaz gain, ohiko Ipuin Ordua ere gaur izango da. Oraingoan *Antonino Apreta* ipuina azalduko dute Gorringo antzerki taldeko kideek, 18:00etan, Atxulondo kultur etxean.

VILLABONA ▶


### Ahokotasun zentroa irekiko dute Subijanan

Bertsozale Elkarteak, Xenpelelar Dokumentazio Zentroak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Villabonako Udalak Mintzola zentroa zabalduko dute Subijana etxean hemendik hilabete batzuetara EBPnren baitan, atzo Donostian jakitera eman zuten. Ahozko tradizioa biltzea, ikertzea eta garatzea izango du helburu eta milioi bat euroko aurrekontua izango du.

VILLABONA ▶

### Aizkardi, Zudairetik Kanpezura

Asteburu honetan izango da Aizkardi mendizale elkartearen hurrengo txangoa. Euskal Herriko hiriburuak uztartuz ekimenaren baitan, Zudairetik Lokizera eta Kanpezu Santikruzera egingo dute izena ematen duten mendizaleek. Otsaileen iritsi zirenekin Iruñera, eta, azaroan iritsiko dira Gazteiza, hiriburuak uztartuz baitoaz. Osteguna baino lehen eman beharko da izena txangorako.



**Tolosaldeko HITZAK zozketatutako ALPINO UZTURRE ELKARTEAREN MAIATZAREN 23 KO IRTEERARAKO 2 SARREREN IRABAZLEA: Izaskun Uranga Etxeberria (Berrobi)**

## LEABURU ▶

## Hilerriari buruz bilera, hildakoen senitartekoekin

Leaburuko hilerrian lekurik geratzen ez dela eta hamar urte baino gehiago dituzten hilobiak kendu behar dituzte. Hala, hildakoen senitartekoekin bilera batean parte hartzeko deia egin die Udalak. Bileran ostegunean izango da, 19:00etan, Leaburu-Txaramako udaletxean.

## BELAUNTZA ▶

## Ikus-entzunezkoa eta ipuinak ostiralean

Eneko Etxeberriaren *Munduari itzulia bizikletaz. 4 urte, 35 herrialde* ikus-entzunezko saioa izango da Belauntzako Kultur Etxean, 20:00etan. Bestalde, Galtaundi euskara taldeak antolatuta, haurrentzako ipuin kontaketa saioa eskainiko dute ostiralean Kultur Etxean, 18:15ean. Nerea Herrarte izango da hizlaria. Ondoren, Udalaren eskutik, merienda izango da haurrentzat.

## IBARRA ▶

## Bizi-Nahiren ibilaldia Izaskunera

Biharko Bizi-Nahi elkarteak ibilaldia antolatu du Izaskunera. Irteera 09:30ean izango da. Meriendaren ondotik, 13:00etan meza izango da, eta jarraian Izaskungo Jate-txean bazkaria. Bere kabuz igo ezin dutenentzat autobus bat jarriko du Bizi-Nahik Izaskunera igotzeko.

## GAZTELU ▶ MENDIA

## Jon Goikoetxea gazteluarrak Everesteko gailurra erdietsi du

Ez du arazo fisikorik eta gaur hasiko da laugarren kanpamentutik jaisten



Jon Goikoetxea, Everestera abiatu aurretik. D. GIBELALDE



Everestera, munduko mendirik garaienera igo da gazteluarra. HITZA

## DANI GIBELALDE

Atzo, goizeko 05:00ak Euskal Herrian, 09:00ak inguru Himalayan. Hantxe zen Jon Goikoetxea *Boli* munduko mendirik garaienaren tontorrean, Everestean (8.845 metro), hain zuzen.

Goikoetxeak argentinar batekin batera egin omen du tontorra. Eguraldi ona lagun, baldintzak ere egokiak izan ditu tontorra egiteko. Azkenean, oxigenoarekin egin du gailurra. Nekatuta, baina ez du arazo fisikorik; hanketan ere ez du

izozketarik, eta «ondo» dago. Laugarren kanpamentura (8.000 metro inguru), hego lepora, jaitsi zen atzo gailurrean ordu erdiz egon ondoren, eta gaur hartuko du berriz beharera bidea. Hasiara batean, tontorra oxigeno gabe egitea zuten buruan Goikoetxeak, baina horretarako «igotzeko baldintza ezin hobekak» izan behar ziren.

Goikoetxeak joan aurretik adierazi zuenez, ez zuten «oxigenoarekin igoera egiteko aukera baztertzin». Everestera oso jende gutxi igo da oxigeno gabe. Oxigenoarekin igotze-

ak ere badu meritua». Ondo bi-dean, ekainean itzultzeko asmoa zuten Goikoetxeak.

Pozik ziren atzo haren lagun eta senitartekoak, Goikoetxearen balentriarengatik. Gazteluko Kultur Batzordeak ere «zoriondu» egin nahi izan du Goikoetxea, baita XIV. Orduetan parte hartutako herritarrak.

## Apirilaren 11ean abiatu

Gazteluarra Josu Feijooekin batera abiatu zen apirilaren 11n Madriletik Himalaya alde-  
ra. Iaz Edurne Pasaban tolosa-

rrarekin Lhotseko gailurra zaldtu zuten Goikoetxeak, eta han ezagutu zuten Feijoo. Iazko abuztuaren gasteztarraren gonbitea jaso, eta bi aldiz pentsatu gabe Everestera joateko erabakia hartu zuten. Feijooekin zegoen Goikoetxea Everestean, baina dirudienez, gasteztarra erretiratu egin zen hirugarren kanpamentuan zegoenean.

Goikoetxeak badu esperientzia garaiera handiko mendiak igoen. Everest eta Ama Dablan ez gain, 2000 urtean 6.856 metroko Ama Dablan igo zuten lau ibartarrekin batera.

## IRAGARKI LABURRAK ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheka  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 50 37  
Faxa: 943 65 09 44  
e-maila: ernio@inmoernio.com  
www.inmoernio.com

**Tolosa.** Erremontari kalean, gutzit berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.

**Tolosa.** Kale Nagusian, 55 m2ko etxebizitza salgai; bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Egoera ezin hobean. 155.061 euro.

**Tolosa.** Erremontari kalean, bi logelako apartamentua saltzen da. Oso egoera onean. 159.268 euro.

**Tolosa.** Erremontari kalean, bost urteko eraikuntza berria apartamentua salgai. Berokuntza eta igogailuarekin. Adineko pertsonentzat aproposa. 108.304 euro.

**Tolosa.** Agintari kalean etxebizitza salgai; bi logela, sukaldea, egongela eta komuna. Sartzeko moduan.

**Berokuntzarekin.** 142.440 euro.

**Tolosa.** Bidebieta auzoan, hiru logelako pisua salgai. Berogailuarekin eta hainbat berrikuntza eginda. 192.350 euro.

**Tolosa.** Larramendi, Pisu ederra garajarekin salgai.

**Tolosa.** Laskorain kalean berritutako pisu ederra salgai; hiru logela eta balkoia. Garajea izateko aukera. 28.476 euro.

**Tolosa.** Gorosabel kalean, 120 m2ko etxe ederra saltzen da, berogailuarekin eta hainbat berrikuntza eginda.

**Tolosa.** Lurrarrendi auzoan, Sam-eko bi etxe atxi salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak! 450.759 eurotik aurrera.

**Tolosa.** lurre auzoan, apartamentua salgai, adineko pertsonentzat edo mugitzeko arazoak dituztenentzat bakarrik. 180.304 euro.

**Ibarra.** Julian Gaiarre kalean.

Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berogailuarekin. Gutzit kanpoaldera.

**Ibarra.** Euskal Herria kalean hainbat etxebizitza salgai. 185.713 euroatik aurrera.

**Urbil.** Zentroan, 60 m2. Etxe polita trastelekuarekin.

**Irura.** Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajarekin. Terraza ederra.

**Berrobi.** Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.

**Legorreta.** 88 m2ko etxebizitza saltzen da. Ikusmen ederrekoa eta oso eguzkitsua. 159.258 euro balio du.

**Alegia.** Hiru logelako pisu ederra salgai, eguzkitsua eta dena kanpoaldera. Ikusteko modukoa. 155.061 euro.

**Alkiza.** Eraikuntza berriko azkenengo etxe bifamiliarra salgai.

**Lizartza.** Etxe ederra salgai herrian bertan. Erreforma egiteko. 171.288 euro. Sekulako aukera!

**Baserriak.** Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...

**Pabilioiak.** Aukera handia; salmantan eta alokairuan. **Borda.** Salgai Urnietan.



## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Ikaztegieta.** Oroimena lantzeko ikastaroa eskainiko du Moira Zeberio.

**Iruia.** Jubilatuen arteko mahai jokua, bote eta toka 17:30ean Zaharren Biltokian.

**Iruia.** Iruari buruzko bideoaren aurkezpena bihar 19:30ean elizan Aitor Mendiluze bertsolariaren laguntzarekin.

**Zizurkil.** Ipuin ordua: *Antonino apreta*. 18:00etan, Atxulondo kultur etxean. Ondoren, Teodoro Hernandezena II. Ipuin Lehiaketako irabazlearen liburuaren aurkezpena.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Alejandro Gonzalezen margolanak Jubilatuek Elkartearen **Hernialde**. Olivia Sanchezen akuarela Ostatuan.

**Iruia.** Pintura eta egur-lantze tailerretako ikaslearen lanak ikastolan.

**Tolosa.** Anjel Cuerdoren argazkiak Aranburu Jauregian. Ekainaren 12 arte.

**Tolosa.** Javier Sotoren margolanak Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** Maribi Iparragirrenen pirograbatutako Saikin tabernan.

**Tolosa.** Manuel Arretxeren margolanak Sorron dendan.

**Tolosa.** Juul erakusketa. Ostirala bitarte, 17:00etik 20:00etara, Haur Liburutegian.

**Zizurkil.** Sükrü Karakus margolari turkiarra. Etzitik hilaren 30a bitarte Atxulondo kultur etxean.



## Hirukide, Gipuzkoako txapeladun

**TOLOSA** ▶ Alebin mailako Gipuzkoako Eskolarteko Atletismo Txapelketa jokatu zen hilaren 8an Irungo Plaiaundi pistan. Oso eguraldi txarra egin arren, Tolosako Hirukide ikastetxeko neska-mutilek maila bikaina eman zuten: haiek dira aurtengo Gipuzkoako txapeladunak. Mutilak altuera jauzian eta pisu jaurtiketan lehenak izanda lortu zuten lurraldeko txapeladun izatea. Neskak, berriz, 2.000 metroan bigarren eginez nabarmendu ziren. «Aipatutakoak egiaztatzen du Hirukidek, Tolosa CFko atletismoko selekzioarekin batera, atletismo eskolarraren alde egiten ari den lan ona», diote taldeko ordezkariek. TOLOSALDEKO HITZA

### HITZA TXAPELKETA

**Bidegoian.** Mujika-Legarreta; Eskudero-Galarraga; Tellebea-Errazkin; Ojuel-Arregi.

(Kadeteak, 19:00etan).

### HITZALDIAK

**Bidegoian.** *Autoestimaren*

*garrantzia*. Bihar, 15:00etan, eskola zaharrean. XXII. Emakume jardunaldien egitarauaren barruan. Aulas Kutxa Gipuzkoak gidatuta.

## HI GAZTE! ▶



**Aldizkaria.** *Hi gazte*.

**Zenbakia.** 4.a.

**Orrialdeak.** 16.

**Tirada.** 2.500 ale.

**Gaiak.** *Marxandi* musika bilduma berria, kontaktua, Tolosa Kup txapelketa, *Kilimak*, eskulanak, diskoak eta liburuak, agenda...

**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea, Udaleko Gizarte Sailarentzat.

▶ Nafarroa Etorbidea, 6 behea.

▶ 943 65 50 04.

▶ [higazte!@euskalerrria.org](http://higazte!@euskalerrria.org).

**Iruia.** *Autoestimaren garrantzia* kafe-tertulua ikastolako ekitaldi aretoan. Aulas Kutxa Gipuzkoak gidatuta.

**Orendain.** *Nola ezagutu zahartzaroko gaixotasunak eta horiei nola aurre egin*. Bihar, 17:00etan, Erretore etxean.

**Tolosa.** Arnaldo Otegi Batasuneko bozeramailearen hitzaldia. Etzi, 20:00etan, Bonberenean.

### ZINEMA

**Tolosa.** Peter Segalen *50 primeras citas*. 19:30ean eta 22:30ean, Leidor zineman. Ikuslearen eguna.

## ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



### URTE ASKOAN

**Beñat Ugartemendia Garmendia (Berastegi).** Zorionak biharko partetik!  
 Ez sufritu hainbeste Realarengatik!



### URTE ASKOAN

**Beñat Ugartemendia Garmendia (Berastegi).** Zorionak biharko partetik!  
 Aita, ama eta Nekanerren partetik.



### URTE ASKOAN

**Aila Zabala Ugartemendia (Alegia).** Bihar urtebete.  
 Zorionak denon partetik.



### URTE ASKOAN

**Esther.** 27 urte eta 10 egun izanda ere, oraindik neska fina zarela... zorionak! Zure lankideak.



### URTE ASKOAN

**Maialen Armendariz (Amezketeta).** Bihar 7 urte.  
 Zorionak, printzesa!

# HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,  
 ezkontzak, jaioberriak...  
 zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara  
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)

Mesedez, ekarri  
 argazkia bi egun lehenago.  
 Mila esker!